

# Enpresak sortzeko sistemen bitartez, ekintzailtza sustatzeko plan integral bat jarri du abian M.Uk

2006/12/13

Enpresak sortzeko sistemen bitartez, ikasle eta irakasleen artean **ekintzailtza** sustatzeko **plan integral** bat jarri du abian **Mondragon Unibertsitateak**

- Ekintzailtza-programak abian jarriz, bai heziketa akademikoan bai hortik kanpo, unibertsitatean berrikuntzaren eta ekintzailtza-kultura sustatzea du helburu neurri horrek.
- Enpresa proiektuak aztertzeke eta aurrera ateratzeko hainbat formula erabiliz, lana sortzea eta lehiakortasuna eta ekonomia-hazkundera hobetzea ditu helburu unibertsitateak neurri horrekin.
- Programa horietako bat da 'Mondragon Ekiten', etorkizuneko enpresa-proiektuak sortzeko behatokia eta inkubagailua dena. Bidasoako Enpresa Proiektuen Zuzendaritzako Masterrarekin eta LADEren bigarren zikloarekin batera, Mondragon Unibertsitatean ekintzailtza-kultura sustatzeko biltzen diren programetarikoa bat da hori.



Herria-(e)n 2006ko hilabetearen eguna-(e)an. Ikasle eta irakasleen artean **ekintzailtza** sustatzeko **plan integral** bat jarri du abian **Mondragon Unibertsitateak**. Plan horrek, enpresa-proiektuak sustatuz, **lana sortzea eta lehiakortasuna hobetzea** ditu helburu. Neurri hori ekintzailtza-sistemen garapeneren bitartez artikulatuko da, bai heziketa akademikoan bai hortik kanpo. Horretarako, enpresak sortzea sustatuko duten bi programa aitzindari jarri ditu abian unibertsitateak.

Proiektu horien bitartez, Mondragon Unibertsitateak bide berri-berria urratu du ekintzailtza inguruan, horretarako, unibertsitateko hainbat estamentutan, baita unibertsitatekanpo ere, berrikuntzaren kultura sustatuz. Gaurtik aurrera, enpresa-proiektu anitzenak abian jarri ahal izateko berariazko erremintak eta programak izango dituzte ikasle eta irakasleek. Ostera, enpresek ekimenik anitzenak ikertzeke eta abian jartzeko unibertsitateko zerbitzu bat izango dute eskura.

Xede horrekin, hainbat formula artikulatu ditu Mondragon Unibertsitateak, esate baterako: **'Mondragon Ekiten'**, enpresa-aurreinkubagailua, eratu berria eta, enpresa sortu eta abian jarri aurreko faseak garatuz, proiektuak testatzeko balioko duena; edo oinarri teknologikoak dituzten enpresentzako programa, ikerketa-proiektuetan lanean ari diren irakasleei zuzendurikoa eta ikerketa-proiektuen bideragarritasuna aztertzeke balio izango duena, baita etorkizuneko enpresa-proiektuak aztertzeke ere. Halere, ekintzailtza-kultura aldeko ekimenak ez dira hor amaitzen. Ikuspegi akademikoari begiraturik, unibertsitateak Enpresa Proiektuen Zuzendaritzako Masterra du. Master horren bitartez, zuzendariak edo ekintzailtza-kulturak behar dituzten ezagutzak, trebetasunak eta gaitasunak bereganatzen dituzte ikasleek. Horretaz gain, unibertsitateak Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziaturako bigarren zikloa du Bidasoako campusean, Irunen, ikasleen izaera-ekintzailtza-kultura sustatzera zuzendurik dagoena.

## 'Mondragon Ekiten'

Proiektu bat abian jartzerakoan funtsezkoa da enpresa sortu aurreko lana. Negozioaren bideragarritasuna aztertzeke, nahitaezko faseak dira prospektiba- eta garapen-jarduerak ikertzea eta aztertzea. Ikuspegi horretatik begiraturik, behatokia eta aurreinkubagailua da **'Mondragon Ekiten'**, enpresak abian jarri aurreko fase guztiak garatzea helburu duena. Momentu horretatik aurrera, eta proiektua errentagarria bada eta unibertsitateko bada, Mondragon Unibertsitatearen eta Arrasateko Saiolan Enpresa eta Berrikuntza Zentroaren ardura izango da proiektu hori abiaraztea. Bestalde, enpresa-proiektuaren aitzindaria enpresa bat izanez gero, enpresak berak hartu beharko du proiektua abiarazteko erabakia. Hau da, lehenengo fasean, proiektua onartuko da, bigarren

fasean, enpresa-proiektua garatuko da eta, azken fasean, enpresan ezarri eta abian jarriko da.

Programa horren barruan sartu ahal izateko bi bide daude: enpresak berak zerbitzu hori eskatuta edo ikasleen edo unibertsitatearen beraren ekimenaren bitartez. Lan horrek ikuspegi zabalagoa izan dezan, azterketari ahalik eta irekitasun handiena emango diona, Mondragon Unibertsitateak diziplina anitzeko taldeak sortzea aurrekusi du. Talde horiek unibertsitateko fakultatetako profil anitzetako ikasleek osatuko dituzte. Ikasle horiek elkarrekin lan egingo dute, ikerketari balio erantsia emateko.

Honako jarduera hauek osatzen dute 'Mondragon Ekiten' zerbitzua: prospektiba ikerketek (etorkizuneko egoeren ikerketa, aukeren identifikazioa eta ikerketa teknologikoa); garapen jarduerak, esate baterako, produktuen eta produkzio-prozesuen diseinua eta zerbitzuen definizioa; negozio planek (ekonomia- eta finantza-ikerketak); eta negozioaren beraren sustapenak (enpresa bat sortzeko eman beharreko urratsak, jarduera abian jartzea eta garatzea).

Unibertsitatearen ikerketa planetan proiektu hori sartu ahal izateko, erakunde akademikoak hainbat aukera aurrekisu ditu: ikerketa-lana ikaslearen karrera amaierako proiektuaren zati izatea, lan hori enpresako praktika gisa hartzea, eta unibertsitateko ikaskuntza praktikoa -PBL, egoerak bideratuz ikastea, metodoa- sistema horren bitartez egitea.

## Oinarri teknologikodun enpresak

**Oinarri teknologikodun enpresei zuzenduriko programa da** ekintzailtzaren bigarren oina. Ekimen horri esker, ikerketa-proiektuak enpresa-proiektu bihurtzeko aukera izango dute Mondragon Unibertsitateko irakasleek. Horretarako, 'Mondragon Ekiten' mekanismoa jarriko da abian. Horrek, ikerketaren ildoak jarraiki, proiektua garatzeko aukerarik dagoen aztertze aukera emango du eta, beraz, bideragarria den jakitekoa.

Izan ere, programa dagoeneko ari da emaitzak ematen, eta programaren ondorioz bi enpresa-proposamen irten dira dagoeneko: lehena, etxeko olio birziklatzeko ekimena, eta, bigarrena, aeronautika-sektorearekin loturikoa.

## Esparru akademikoa

**Esparru akademikoan**, Mondragon Unibertsitateak ekintzailtza sartu du graduondoko heziketan; horretarako, bi bide nagusi erabili ditu: Enpresa Proiektuen Zuzendaritzako Masterra eta Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziatura. Graduondoko tituluari dagokionez, etorkizuneko enpresariei zuzendutako programa bat da, eta honako helburu hauek ditu: pertsonengan arreta jartzen duten kudeketarako tresna berriak, ideia berriak eta zuzentzeko modu berriak garatzea. Azken finean, geroz eta inguru lehiakorrago bati aurre egin behar dioten erakundeak kudeatzea da helburua, zuzendaritza- eta kudeaketa-tekniketan maila handiko heziketa emanez, hori guztia berrikuntza, sormena, ekintzailtza eta taldeko lana aintzat hartzen duen ikuspegitik.

Aurten, masterraren VIII. edizioa antolatu du unibertsitateak. Masterrak hamasei hilabeteko iraupena du. Guztira, 2.080 heziketa-ordu ditu, eta parte hartzaileek erabateko dedikazioa izango dute. Masterrak hiru fase ditu. Lehenengoan, ikaslea enpresa-kudeaketan prestatzen da; prestakuntza hori geletan egiten da, eta enpresetako profesionalak eta unibertsitateko irakasleek hartzen dute parte. Bigarren fasean aurreproiektu bat egiten da, Saiolan Enpresa eta Berrikuntza Zentroaren tutoritzapean. Eta hirugarren fasean Masterreko amaierako proiektua burutzen da, MCCren inguruko enpresetan zortzi hilabetez lan eginez, bai Euskal Herrian bai Euskal Herritik kanpo, partaidetutako enpresaren batean. 1998tik, gaur egun enpresetan erantzukizun-karguetan lan egiten duten 120 profesional prestatu ditu unibertsitateak.

## LADE

Bidasoako campuseko, Iruneko, **Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzako bigarren zikloa da esparru akademikoaren bigarren oina**. Lizentziatura hori aitzindaria da estatu osoan, eta argi eta garbi

izaera ekintzailea sustatzeko diseinaturik dago. Batik bat aukera berrien kudeaketa bultzatzea du xede, dauden erakundeen administrazioa kudeatzea baino.

Ekintzailatza-kultura ikasleen artean sustatzea du helburu horrek, eta, beraz, titulazioaren bitartez, enpresetan proiektu berriak (bai produktuak, bai negozio-lerroak) garatu ahal izateko gaitasun eta trebetasunak ematea, baita beraien konpainia berria sortzeko ere. Hau da, ikasleek ekiten ikasteko titulu da.

Titulazio horrekin, Mondragon Unibertsitateak aukera berrien kudeaketa bultzatzea du xede, dauden erakundeen administrazioa kudeatzea baino. Horretarako, erakundearen handitzea ahalbidetuko duten negozio aukera berriak ekiteko, garatzeko eta zuzentzeko gaitzen dira graduatuak. Hori guztia praktiken bitartez egiten da. Beraz, benetako kasuen bidez ikastea, hori da ikasleak ekiteko eta sortzeko gai izan daitezten unibertsitateak ezarritako helburua; horretarako, behar diren ezagutzak, tresnak eta trebetasunak ematen zaizkie. Gainera, heziketa prozesuan, ikasleek diziplina anitzeko proiektuak egiten dituzte, ikaskuntza autonomia sustatuz eta tituluaren funtzio profesionalak simulatuz, ezagutzak ingurune edo kasu praktikoetan erabiltzeko.

Horretarako, titulazioan teoria eta praktika partekatzen ditu Mondragon Unibertsitateak, oinarritzko ezagutza teorikoak emanez benetako arazoei irtenbide praktikoak aurkitzeko.

[www.mondragon.edu](http://www.mondragon.edu)

## V K Comunicación

*informazio gehiagorako:*

1. **Xusane de Miguel Ortiz**
2. **Tfno:** 944 01 53 06. Mugikorra 629 75 33 36.
3. **Posta elektronikoa:** [xusane@vkcomunicacion.com](mailto:xusane@vkcomunicacion.com)